

ETORKIZUNA ERAIKIZ think tank

KULTURA POLITIKO BERRIA

19. BILERAREN MEMORIA

2022/05/25

Edukia

1. Programa 3
2. Bertaratuen zerrenda 3
3. Ongietorria 4
4. Garapen agentzien inguruko aurkezpena 9
5. Mapatzearen emaitzak 12
6. Talde dinamika 14
7. Saioaren itxiera 16
8. Eranskinak 18
   a. Saioan erabilitako aurkezpena 18
   b. 20. Lan dokumentua 32
   c. Saioko programa 39

KULTURA POLITIKA BERRIARI BURUZKO EZTABAIDA GUNEA

2022ko maiatzaren 25a, 17:00h-19:00h

1. Programa

Gaia	Arduraduna
Ongietorria	Eider Mendoza. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Garapen agentzien inguruko aurkezpena	Itziar Salaberria. **UGGASA, Urola Garaia Mankomunitateak**
Mapatzearen emaitzak	Naiara Goia. **Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategia**
Talde dinamika	Miren Larrea. **Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua**
Saioaren itxiera	Eider Mendoza. **Gipuzkoako Foru Aldundia**

2. Bertaratuen zerrenda

1. Eider Mendoza. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
2. Xabier Barandiaran. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
3. Ander Arzelus. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
4. Sebastián Zurutuza. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
5. Ion Muñoa. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
6. Itziar Eizagirre. **Gipuzkoako Foru Aldundia**
7. Julen Cocho**. Gipuzkoako Foru Aldundia**
8. Fernando Tapia. **Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)**
9. Mikel Irizar. **Eusko Ikaskuntza**
10. Asier Lakidain. **Sinnergiak**
11. Naiara Goia. **Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategia**
12. Itziar Salaberria. **UGGASA, Urola Garaia Mankomunitateak**
13. Miren Larrea. **Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua**
14. Eva Sánchez. **Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua**
15. Mikel Gaztañaga. **Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal institutua**

3. Ongietorria

Gobernantzako Diputatuak hasi du saioa. *"Arratsalde on guztioi. Beti bezala eskerrik asko saiora hurbiltzeagatik eta hemen parte hartzeagatik. Gogoratu apirilean ez genuela saiorik izan. Azken saioa martxokoa izan zen. Gaurko saioan hainbat gai jorratuko ditugu. Baina, lehenik eta behin gauzatxo bat aipatzea gustatuko litzaidake. Maila anitzeko gobernantzaz hitz egiten dugu. Hau da, Gipuzkoako Foru Aldundia, mankomunitateak eta udalak integratzen dituen gobernantzaz, hain zuzen ere. Lankidetzazko gobernantzak eragina izango du maila anitzeko gobernantzan. Lankidetza hori ulertzea garrantzitsua izango da. Horrekin lotuta, gaur think tankean kide berri bat daukagu. Kide berri hau aditua eta aritua da aldi berean. Beraz, lehenik eta behin, ongietorri think tankera. Dudarik gabe zure esperientzia oso aberasgarria izango da talde honentzat."*

Gobernantzako Diputatuak jarraitu du hitz egiten. *"Gaurko saioaren egitura honakoa izango da (eranskinak a; diapositiba 3). Beraz, gaurko saioan nahiko gauza ikusiko ditugu. Orkestrako erraztaileari hitza eman baino lehenago, gauza bat komentatzea gustatuko litzaidake. Think tankean ikuspegi sistemikoa sustatu nahi dugu. Hau da, think tank desberdinen arteko lotura eta ikuspegi sistemiko bat egon behar da. Horren harira, beste think tank batean, zaintzakoan hain zuzen ere, gobernantza onaren kodea proposatu zen. Izan ere, think tank horretan hainbat kezka sortu ziren: think tankean ko-sortzen den jakintzaren erabilera, parte hartzaileen ardurak, etab. Kode hau proposatu zen parte hartzen duten guztiak eroso sentitzeko. Kezka horiek ez izateko. Hurrengo saioan landuko dugu hau sakonago. Baina, saio hori baino lehenago komentatu nahi genuen. Bestalde, Etorkizuna Eraikizeko lankidetzazko gobernantzaren irizpideak eskatu zaizkigu. Hori lehen aipatu dudan bisio sistemiko horrekin lotuta dago. Hau da, irizpide orokor batzuk identifikatu nahi dira Etorkizuna Eraikizeko lankidetzazko gobernantzaren inguruan. DFG3ri emango diot hitza, hau hobetu azaldu dezan."*

DFG3k hartu du hitza. *"Kaixo guztioi. Gobernantzako Diputatuak esan duena pixka bat azaltzea gustatuko litzaidake, argi gelditu dadin. Izan ere, Etorkizuna Eraikizen marrazki*

konplikatu xamarra daukagu. Etorkizuna Eraikizen gobernantza maila eta gune asko daude. Espazio asko daude. Horien arteko bisio sistemikoa izatea garrantzitsua da. Eta nahiko zaila da. Izan ere, espazio horietan bakoitzak bere gobernantza mota dauka. Gobernantza propio asko daude. Zentzu horretan Etorkizuna Eraikiz zerbait konplexua eta sakona bihurtzen ari da. Hasierako ereduan irudikatzen genuen hori konplexua bihurtu da. Meta gobernantzaz hitz egiten dugu. Koordinazio bat egon behar du. Talde batzuk badaude koordinazio lan horretan. Aholkularitza batzorde bat ere badago. Eta gainera, beste espazio txiki bate ere badago: lankidetzazko gobernantzaren laborategia. Bertan zuzendaritzako ordezkari batzuk daude. Baita Orkestrako ikerlari eta erraztaile batzuk ere. Batek Orkestra errepresentatzen du. Bestea ekosistemako kide bezala etortzen da. Arantzazuko Laborategiko zuzendariak ere talde horretan parte hartzen du. Gobernantzaren laborategi horren funtzioa prozesuan aurrera joan ahala erabakitzen ari gara. Etorkizuna Eraikizen baitan bisio sistemikoa eta lankidetzazko gobernantza nola ari da garatzen? Sistema osoan nola ari gara lantzen? Hori ulertu eta aztertu nahi da. Hutsuneak eta indarguneak identifikatu nahi dira. Eta talde honetan konturatu gara think tankak rol garrantzitsua daukala. Gutxi gorabehera hori esan nahi nuen. Orain Gobernantzako Diputatuari emango diot hitza. Eskerrik asko."

Gobernantzako Diputatuak hartu du hitza. *"Komentatu nahi dudan ideia da think tank honetan egiten dugunak Aldundi osorako balio duela. DFG3k aipatu du think tanka garrantzitsua dela. Eta horrela da. Talde honetan lankidetzazko gobernantzaren definizioa konkretatu da, irizpide batzuk ezarri dira, etab. Nahiz eta horiek talde honetan landu, Aldundi osora hedatzen ari dira. Azken komentario bat egitea gustatuko litzaidake. Martxoko saioan Nerea Urcola eta biok egin genuen ariketa azaldu genuen. Bertan esan zen Aldundiak historikoki izan duen arazo konplexu bat konpontzea lortu zela. Egin genuen aurkezpenari talde honek feedbacka eman zion. Hainbat gauza identifikatu zituzuen. Izan ere, guk planteatu genuen arazoa konponduta zegoela. Baina, talde honetan aipatu zen konponbide hori hedatzean arazoak bilatzeko arriskua izango genuela. Zuen ekarpen horiek kontuan hartu ditugu. Hori dela eta, uste dugu erraztaileen figura oso garrantzitsua dela. Orkestrako erraztaileak formakuntza bat emango die. Aktore-erraztaile figura landu nahi da. Zailtasunei aurre egin nahi zaie. Horrekin esan*

nahi dudana da zuen ekarpenak garrantzitsuak direla eta zintzoki entzuten ditugula. Honekin nire zatia bukatuko dut eta Orkestrako erraztaileari emango diot hitza."



Orkestrako erraztaileak hartu du hitza. *"Prozesuaren hasieratik zaudetenok gogoratuko duzue hasieran talde honetan etxeko lanak egoten zirela. Hemendik aurrera etxeko lanekin hasiko gara. Ez arduratu, izan ere, ez dute denbora askorik eskatuko. Baina, saiora etorri baino lehen hainbat lan aurreratuta etortzea gustatuko litzaiguke. Saioaren bukaeran azalduko dugu zein izango diren etxeko lanak. Beste alde batetik, gogoratzen dizuegu saioan ebaluazioak jasotzen ditugula. Horiek, gero, koordinazio bileran komentatzen ditugu eta zenbait aldaketa egiten ditugu saiotik saiora. Aurreko ebaluazioan hainbat gauza atera ziren: euskararen erabilera think tankean, jendea falta dela azken aldian, etab. Askotan aipatu izan da taldearen hizkuntza naturala euskara dela eta hori bermatu egin behar dela. Adibidez, kanpoko aditu bat etortzen bada, itzultzaile sistemarekin. Beste alde batetik, aipatu zen jende gutxi etortzen dela azken aldian. Hori dela eta, koordinazio bileran erabaki genuen bilera baino lehenago gure sarea mobilizatu beharko genuela jendea saiora etortzen hasteko. Kezka hori batek*

baino gehiagok jarri zenuten ebaluazioetan. Gaur, adibidez, jende gutxi falta da. Gaur hiru pertsona falta dira. Eta, normala da. Baina, egia da kezka bat zegoela horren inguruan."

Orkestrako erraztaileak hitz egiten jarraitu du. *"Gure partetik, ebaluazioetan agertzen diren kezkei erantzuten saiatuko gara. Zentzu horretan, bada azken ebaluazioetan atera den beste kezka bat: hausnarketaren presentzia gehiago eskatzen da. Think tank hau kultura politiko berriaren eta lankidetzazko gobernantzaren inguruan hausnartzeko eta ekintzara pasatzeko sortu zen. Eta, modu desberdinak daude horiei gerturatzeko. Batzuk teorikoagoak eta beste batzuk, aldiz, praktikagatik gertuagoak. Hau da, askotan esaten dugun moduan, aditu eta arituekin. Baina, egia da azken aldian arituekin ibili gara lanean gehien bat. Zentzu horretan, agertu den kezkak hausnarketa baztertzen ote ez garen azpimarratzen du. Hau da, hausnarketa gehiago egin behar duela taldeak. Azken urtean kontzeptualizazioaren inguruan hausnartzen ibili gara. Baina, orain, ekintzan gaude murgilduta. Horren inguruko kezka agertu dela aipatu nahiko nuke. Hori dela eta uste dut taldeari ondo etorriko litzaiokela aditu batekin saio bat egitea: kontzeptu edo marko batzuk lantzeko, adibidez. Hori dela eta, norbaitek hausnarketa teorikoago hori egiten lagunduko digun norbait ezagutzen badu, ondo egongo litzateke proposamen bat egitea. Adituaren figura berriz ere saiora ekartzea positiboa izango zela uste dut."*

DFG5ek hartu du hitza. *"Niri, horren harira, gauza bat esatea gustatuko litzaidake. Izan ere uste dut ebaluazioan hori jarri zuena ni naizela. Beraz, azaltzea gustatuko litzaidake. Niri, azken saioan, hau gertatu zitzaidan: iruditu zitzaidan ezagutzarik ez dudan gai baten inguruan iritziak ematen ari nintzela. Saioan agertu zirenen gaien inguruan ezagutzarik ez dut. Gehiago daude lotuta pertsonen kudeaketari. Eta nik horren inguruan ezer gutxi esan dezaket. Edo, behintzat, probetxuzko ezer gutxi. Zer aportazio egin dezakegu? Iritziak ematen ari ginen. Baina, aportaziorik egin al genuen? Hori da niri sortu zitzaidan kezka. Egia da saioa ez zela gaizki joan. Baina, nire esparrutik ateratzen den gai baten inguruan hausnartzen eta iritzia ematen nengoela iruditu zitzaidan. Sentsazio horrekin gelditu nintzen. Hori esplizitatu nahi nuen."*

Orkestrako erraztaileak hartu du hitza. *"Nik ere hausnarketa batzuk egin ditut horren inguruan. Eztabaida oso sakona da. Talde honek erabaki bat hartu zuen prozesuaren hasieran: bakoitzak bere etxe edo antolakundean eraldaketa sustatzeko. Ekosistema baten parte gara. Eta bakoitzak bere eremua, antolakundea edo taldea dauka. Batzuk, Aldundian. Besteak ikerketa zentroetan edo unibertsitatean. Bakoitzak bere testuingurua ezagutzen du. Horietan eraldaketa sustatzeko erabakia hartu zen prozesuaren hasieran. Baina, hori prozesuaren momentu batean aldatu egin zen. Momentu honetan denok bi proiektu partekatzen ditugu: Aldundiko eraldaketa eta lurraldeko mapeoa. Ardura bi pertsonek dute. Eta guk, talde bezala, bi proiektu horien jarraipena egiten dugu. Gero, guk, talde bezala, eraldaketa batzuk sustatu nahi ditugu. Ekosistema bezala. Elementu guzti horiek lotuta daude."*

DFG5ek hartu du hitza. *"Azpimarratu nahi dudan ideia hau da: denok ez dakigu den-denaren inguruan. Hori ezinezkoa da. Beraz, nik gai baten inguruan ez badakit, edo ezer gutxi badakit, ez dut ezer interesgarririk esango. Agerikoa den zerbait esango dut. Zentzu horretan, azken saioa gure ezagutzatik urruti zegoela iruditu zitzaidan. Gai horren inguruan, hemen baino gehiago, beste eremu batzuetan egongo da. Hori komentatu nahi nuen, besterik ez."*

Gobernantzako Diputatuak hartu du hitza. *"Nik badaukat zerbait komentatzeko. Badirudi egin dugun prozesua erraza dela. Baina, izugarri konplexua da. Aldundiak arazo historiko bat izan du. Bi departamenduen arteko ezin ikusia izugarri arazo potoloa izan da Aldundian. Eta, arazo hori, modu batean edo bestean, konpontzea lortu da. Lankidetzazko gobernantza sustatu da. Izan ere, lehen ez zuten elkarrekin lan egiten. Hor aldaketa bat egon da."*

DFG7k hartu du hitza. *"Kaixo. Nik komentario bat egin nahiko nuke. Maila anitzeko ikuspegitik etxe honetan esperientzia ugari daude. Maila anitzeko ikuspegitik klima, energia, etab. landu dira. Lankidetzazko gobernantzako estrukturak eta prozesuak ere badaude. Aldundian esperientzia ugari daudela azpimarratu nahiko nuke."*

Orkestrako erraztaileak hartu du hitza. *"Think tankaren apustua izan da hausnarketaz gain ekintzarako apustua egitea. Ekintza laborategi bezala irudikatu da. Ekintza eta hausnarketa uztartuz ezagutza sortzen joan eta eragitea. Baina, zein ekintza egin nahi izan dira? Bi aipatu genituen. Bata, barne eraldaketari bideratuta. Hau da, Aldundiaren eraldaketari bideratuta. Eta, bestea lurraldera bideratuta. Baina, egia da beste esperientzia batzuk ere badaudela. Gaur etorri den partaide berria horregatik gonbidatu dugu. Beraz, uste dugu beste esperientziak entzutea oso ondo dagoela. Orain UGGASAko zuzendariari emango diot hitza, garapen agentzien inguruko aurkezpena egin dezan."*

4. Garapen agentzien inguruko aurkezpena

UGGASAko zuzendariak hartu du hitza. *"Arratsalde on guztioi. Eskerrik asko deliberazio talde honetan parte hartzera gonbidatzeagatik. Egingo dudan aurkezpena oso eskematikoa izango da. Gainetik azalduko ditut gaiak. Garapen agentzien inguruko presentazioa egingo dut. Aurkezpena power point batekin lagunduko dut, hobeto ulertu dadin. Lehenik eta behin, esan beharra daukat UGGASAtik natorrela. UGGASA, Urola Garaia Mankomunitateak 1994. urtean sortutako Garapen Sozioekonomikorako Agentzia da. Gipuzkoako Garapen agentzi batzuk mankomunitateek sortu zituzten. Beste batzuk aldiz, sektore publikoko erakundeak dira. Garapen agentzien misioa udalerrien eta eskualdeen garapen sozio-ekonomikoan laguntzea da. Posizionamendu lehiakor diferentziala lortzera bideratutako estrategia baten bidez, balio erantsia sortzen lagunduko duten ildo estrategikoak eta proiektuak identifikatuz, eta horiek lortzeko, inplikatutako eragile sozioekonomiko guztien erantzunkidetasuna landuz. Esku-hartze arloak hauek dira: ekintzailetza, turismoa, jasangarritasuna, enpleguen sustapena, etab. Garapen agentziak lurraldeko plan estrategiko baten baitan jaio ziren. Hasieratik gure helburuetako bat garapen sozioekonomikoa bultzatzea izan da. Baina, helburu hori lurraldeko eragile desberdinekin bultzatu nahi zen. Hau da, lurraldeko aktore desberdinekin helburu amankomunak bilatu eta horien bueltan lana egitea."*

UGGASAko zuzendariak aurkezpena egiten jarraitu du. *"Finantzazioari dagokionez, garapen agentziek iturri desberdinak dituzte. Alde batetik finantzazio pribatua dago.*

Eta, bestetik, publikoa. Baina, publikoaren barruan iturri desberdinak daude. Ehuneko 45 inguru udalek finantziatzen dute. Bestalde, nahiz eta askoan pentsatu Aldundiaren finantzazioa gehiengoa dela, ehuneko 15a finantziatzen du. Esan bezala, askotan pentsatzen da Aldundiak askoz ere gehiago finantziatzen duela. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak ehuneko 20a finantziatzen du. Eta, bukatzeko, Europak ehuneko 10a. Beraz, finantzazio iturri desberdinak daude."

UGGASAko zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Euskadi mailan 35 garapen agentzia daude. Horietatik 11 Gipuzkoan daude. Aurkezpenean (eranskinak a; diapositiba 11) ikusi ditzakezue zein diren. Garapen agentzia horien artean kohesio handia dago. Gure arteko harremanak oso sarrikoak dira. Harreman hau 2015tik aurrera asko sakondu da. Eta, batez ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Laborategian kohesionatu dira. Eskualde bakoitzak bere garapen agentzia dauka. Hala ere, hasieratik garapen agentzia eta eskualdea desberdindu nahi izan ditugu. Izan ere, eskualdeetan beste eragile asko daude agentziak ez direnak. Beraz, agentziak eta eskualdeak ez dira berdinak eta hori hasieratik garbi utzi izan nahi dugu. Aktore desberdinak gaude eta denok gure erantzukizuna daukagu."*

UGGASAko zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Eskualde bakoitzak bere berezitasunak ditu. Hori dela eta, garapen agentzia bakoitzaren estrategiak, indarguneak edo ahulguneak desberdinak dira. Bestalde, beti erreibindikatu izan da lurraldeko oreka Gipuzkoako indargune bezala. Hori dela eta, lurraldeko eta erkidegoko politika eta baliabideak eskualde guztietara iritsi behar dute. 2021an Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatu zen akordio bat. Horren arabera, garapen agentzien rola udalen tresnak zein estrategiak zehazteko eta eskualdeen eta udalerrien garapen sozioekonomikora bideratutako jarduerak ezartzea da, besteak beste. Horrez gain, lurraldeko harremanak errazten dituzte agentziek. Aurkezpenean (eranskinak a,; diapositiba 13) ikusi dezakezue garbiago. Betidanik eduki dugu rol hori, egia esanda. Hala ere, rol horren izena Orkestrako ikerlariek jarri zuten. Bestalde, garapen agentziek ez dute inongo jerarkiarik besteekiko. Aktore desberdinekin egiten dugu lan. Kapital soziala, sare eta sinergia desberdinak lantzen ditugu. Lurraldeko aktore eta eragileekin egiten dugu lan. Konfiantzazko eremuak eta harremanak bultzatzen saiatzen gara. Izan ere, jerarkiarik ez*

dagoen eremu eta espazioetan oso garrantzitsua da konfiantzazko harremanak egotea. Eta, hori, urteetako lanaren bitartez lortzen da. Horrek esan nahi du entzute aktiboa, gardentasuna, etab. bultzatu behar direla."

UGGASAko zuzendaria aurkezpena egiten jarraitu du. *"Lurraldeko aktore eta eragile desberdinekin lan egiten dugu. Lurraldeko indar eta interes desberdinak mobilizatzen eta dinamizatzen ditugu. Ezagutze kolektiboa sortu nahi dugu. Gure inguruko kapazitateak bultzatu eta garatu nahi ditugu. Eragile desberdinen atzetik ibiltzen gara normalean. Kontsentsuak bilatzea ezinbestekoa da, izan maila politiko edo teknikoan. Izan ere, kontuan hartu behar da partidu politiko desberdinak daudela eta horiekin egin behar dela lan. Beraz, kontsentsua lortzen duten proiektuak martxan jartzen saiatzen gara. Bisio orokor hori mantenatzea ezinbestekoa da."*

UGGASAko zuzendariak hitz egiten jarraitu du. "*Garapen agentzien historiari dagokionez, 80. hamarkadan sortu ziren. Administrazio kontseiluen izaera kontuan hartuta, udalen eta zenbait kasutan hauetan ordezkaturiko alderdi politikoen arteko lankidetzan zuten oinarria. 2000. hamarkadaren hasieran hainbat aldaketa ematen dira. Garapen endogenorako apustuei jarraituz, agentziak zerbitzuak ematetik sareen dinamizatzaile izatera pausoa ematen hasi ziren. Udalen eta agentzien garapen politikak enpresa eta eskualdeko beste eragileekin lantzen hasi ziren. Beste data garrantzitsu bat 2013a da. Urte horretan garapen agentziek Gipuzkoak Foru Aldundiaren gonbidapen bat jaso zuten Gipuzkoa Sarean programaren baitan lurraldearen garapenerako estrategia partekatu eta lankidetzan garatzeko. Eskualde arteko mahaia sortu zen. 2017an mugarri garrantzitsu bat dago. Lortutako adostasunak Aldun nagusiak eta agentzia guztietako lehendakariek sinaturiko hitzarmenean jaso ziren, gobernantza instituzionalizatuz. Gipuzkoa Sarean Etorkizuna Eraikizen txertatzen da LGLab izenarekin. Bakoitzak bestearen rolaren aitortza bat egon zen. 2021ean hitzarmena berretsi egiten da. Eremu batzuetan lankidetzazko gobernantzako esperientzia aurreratuak garatu dira. Beste batzuetan ezin izan da aurrera egin. Agentzien artean eredua barneratzeko pauso esanguratsuak eman dira. Hau izan da gutxi gorabehera esan nahi nuena. Eskerrik asko."*

5. Mapatzearen emaitzak

Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendariak hartu du hitza. *"Kaixo guztioi. Denboraz gaizki goaz. Beraz, nire aurkezpena azkar-azkar egingo dut. Lehenik eta behin esan nahiko nuke prozesua berak eraman gaitula saio honetara. Gogoratzen bazarate, urtarrilean aurkeztu genuen mapatzearen ekintza. Beraz, gaurko saioaren helburua mapatzearen egoera orokorra azaldu eta horren gainean hausnartu eta eztabaidatzea da. Mapatzearen helburua honakoa izan da: Gipuzkoan lankidetzazko gobernantza bultzatzen ari diren erakunde eta proiektuen mapa bat osatu, haien ibilbidea eta jarduera sakonean ulertzeko eta haien arteko saretze prozesuaren oinarriak jartzeko. Gainera, hainbat helburu espezifiko izan ditu mapatzeak: egun lurraldean daukagun gobernantza ereduaren egoera eta abiapuntuko diagnosia egin; lurraldean lankidetzazko gobernantza eredua hedatzeko erronkak eta aukerak identifikatu; lankidetzazko gobernantza sendotzeko dinamika berriak aktibatu, diagnostikoan identifikatutako behar eta lehentasunen arabera, etab. Eta gehiago daude. Aurkezpenean (eranskinak a; diapositiba 16) ikusi ditzakezue."*

Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Lehen analisi erronda egin dugu. Ekintza honetan hainbat helburu planteatu genituen. Plangintza betetzen ari da. Behin-behineko emaitza batzuk badaude. Hasieran udal batzuekin hasi ginen. Geroz eta udal gehiago elkarrizketatu ditugu. Garapen agentziekin ere egon gara. Gobernantzaren diagnostikoa egin nahi izan dugu. Beraz, lehen etapa bat egin dugu. Baina, ondoren zer? Hurrengo urratsei dagokionez, udal batzuei kontrasteko formulario bat bidali diegu. Formulario hori osatuko dute. Uztailean gobernantza sailarekin bi topaketa egitea aurreikusi dugu. Horiekin ere kontraste batzuk egin nahi ditugu. Esan bezala, udal txiki eta handiekin egon gara lanean. Geroago jardun honetan nola sakondu ikusiko dugu. Bestalde, jarraipenerako, bisualizaziorako eta ekosistemaren dinamizaziorako tresna digitala ezarri nahi da. Gainera, GFAk lurraldean duen sarea indartu eta dinamizatzea bultzatu nahi da."*

Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendariak bere aurkezpena egiten jarraitu du. *"Badakit azkar joaten ari naizela. Baina, denboraz juxtu goaz. Aurkezpenean dituzue xehetasun gehiago. Beraz, dena gainetik azalduko dut, asko sakondu gabe. Mapatze ariketaren konklusioei dagokienez, orain azalduko ditut. Lehenik eta behin, aipatu behar da familia politiko desberdinak daudela. Horrek interpretazio edo ulermen desberdinak egotea ekartzen du. Hau ondorio argietako bat da. Denek ez dute modu berean ulertzen. Horrekin lotuta, maila kontzeptualean ere desberdintasuna nabaritu da: parte hartzea, auzolana, etab. Bestalde, kultura politiko berri baten beharra ere esplizitatu da. Konklusio edo ondorio gehiago atera ditugu. Kontraesanak atera dira prozesuan zehar. Adibidez, askotan esan da parte hartze gehiago egon behar dela. Baina erraz esaten den zerbait da. Izan ere, erantzukizunez gutxiago hitz egin da. Beraz, kontraesan batzuk daudela esan daiteke."*

Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Udal guztiek esan digute herritarren parte hartzea sustatu nahi dutela. Askok esan digute formula berriak behar dituztela. Asko atera den ideia bat da hori. Gaitzuste politikoa oso hedatuta dagoela aipatu digute. Ez dakitela parte hartzea eta politikan interesa sustatzen. Asmatzea falta zaiela. Horrelako ideiak helarazi dizkigute. Tresnak eta gaitasunak falta dira. Bestalde, interesgarria egin zaigu bataz besteko Etorkizuna Eraikizen inguruan dagoen pertzepzioa. Nola ulertzen den Etorkizuna Eraikiz, adibidez. Interesgarria da nola jasotzen diren lankidetzazko gobernantzaren erronkak eta lehentasunak lurralde mailan. Eta zein aukera atera daitezkeen. Praktika komunitate hori idortzeko oso ideia interesgarriak atera dira prozesuan zehar. Bestalde, auto-konplazentzia kontzeptua agertu da. Auto-konplazentziaren arriskua, hain zuzen ere. Hauek izan dira oraingoz, eta oso azkar esanda, mapatzearen emaitzak. Esan bezala, aurreikusi bezala goaz."*

Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Talde dinamikara pasa baino lehenago hausnarketa batzuk partekatzea gustatuko litzaidake. Lehenik eta behin, lankidetzazko gobernantza ulertzeko modu ezberdinak daude, praktikan eta teorian. Beste alde batetik, mapatze prozesuak Udaletara eta Garapen agentzietara gerturatu gaitu. Horrez gain, konturatu gara lankidetza eta lankidetzazko*

gobernantza modu desberdinetan ulertu daitekeela. Perspektiba eta ikuspegi desberdinak daude. Heldutasun maila desberdinak identifikatu ditugu. Aktore desberdinak daude, eta haien ulermenak, heldutasuna eta ikuspegiak desberdinak izan daitezke. Beraz, irizpide batzuen aplikazioa desberdina izango da: rolak, lidergoa, boterea, etab. Honekin nire aurkezpena bukatuko dut. Orain, talde dinamikara pasako gara. Galderak hauek dira (eranskinak a; diapositiba 25). Beti bezala, 40 minutu izango dituzue galdera hauen inguruan eztabaidatzeko. Lehenengo txantiloi indibidualak bete, mesedez. Gero talde txantiloiak bete. Azkenik, talde bakoitzaren bozeramaileak ideia garrantzitsuenak partekatuko ditu. Eskerrik asko."

6. Talde dinamika

Talde dinamika bukatu ostean, parte-hartzaileak plenariora itzuli dira.

Lehenengo taldea

Lehenengo taldearen bozeramailea ECO9 da. *"Gure taldean galdera batzuk eztabaidatu ditugu. Gure ustez udalek garrantzia gutxiago daukate. Ez daukate ahalmenik. Aldundiak, zentzu horretan, zilegitasun handiagoa dauka. Horren inguruan asko hitz egin dugu. Hau da, lurraldean zein aktorek du zilegitasun gehien? Gure taldean agertu den ideia hau da: Aldundiak zilegitasun demokratikoa dauka lurralde osoan. Hala ere, gure ustez beste aktoreei lekua utzi behar die. Eusko Jaurlaritza adibidez zaintzan eta langabezian sartuta dago. Beste alde batetik, Aldundiak beste lurraldeko aktoreekin duen harremanen inguruan hitz egin dugu. Adibidez, garapen agentziekin. Gure ustez beti azken hitza Aldundiak dauka. Hala ere, Aldundiak beste aktoreak entzuten ditu. Lehen partaide batek aipatu du Aldundiak jator entzuten duela. Hau da, nahiz eta erabakimen eskubidea berak izan, beste lurraldeko aktoreak kontuan hartzen eta entzuten dituela. Gutxi gorabehera hori da gure taldean aipatu diren ideia nagusiak. Eskerrik asko."*

Bigarren taldea

Bigarren taldeko bozeramailea ECO10 da. *"Gure taldean gauza askoren inguruan hitz egin dugu. Gure ustetan, lidergoa Aldundiarena da. Hala ere, Aldundiak ahalbideratu duen lidergoa partekatua da. Maila anitzeko gobernantza batez hitz egiten dugu. Etorkizuna Eraikiz berak ekartzen du lankidetzazko gobernantzaren ideia bat. Izan ere, espazio dialogiko bat sortzen da bere baitan, aktore eta erakunde desberdinek bertan eragiteko. Gainera, prozesuaren helburu garrantzitsuenetako bat lidergo partekatu bat eraikitzea da. Hala ere, hori ez da erraza eta denbora eta esfortzua exigitzen ditu. Prozesuak zeinek irekitzen ditu? Gure ustez prozesuak espazio dialogiko horretan sortzen joaten dira, lidergo partekatu batekin. Ziklo berriak hor ematen dira. Oso normatiboa eta teorikoa da esaten duguna. Eta, kontziente gara hortaz. Baina, gure ustez, ikasteko eta jarduteko espazio komun bat egon behar da. Izan ere, lankidetzazko gobernantza hor ematen da. Rolak espazio horretan definituko eta ezarriko dira, gainera. Taldean esan duguna laburbiltzen saiatu naiz. Eskerrik asko."*

Hirugarren taldea

Hirugarren taldeko bozeramailea ECO3 da. *"Etorkizuna Eraikiz Aldundiaren lidergotik sortzen da. Hala ere, maila anitzeko gobernuak egon behar dutela uste dugu. Lurraldearen inguruko hausnarketa bat egin dugu. Orain aspalditik uste dudan zerbait esango dut. Momentua aprobetxatuko dut. Eskualdeak indartu beharko liratekela uste dut. Eskualdeei zilegitasuna eman beharko litzaieke. Nire ustez indartu beharreko zerbait dira. Ideia bat botako du: batzar nagusiak eskualdeka antolatu beharko lirateke. Gero, konbibentziarako unitate txikiak egongo dira. Nahi diren bezain txikiak."*

ECO3k hitz egiten jarraitu du. *"Bestalde, taldean erabakien inguruan hitz egin dugu. Gure ustez hor gatazka bat dago. Izan ere, partekatu edo entzun bai. Baina, azken erabakia zeinek hartzen du? Hor erantzukizun legalak daude, adibidez. Deliberazioan parte hartzeko eskatzen zaie aktoreei. Bertan haien iritzia ematen dute eta denon artean eztabaidatzen da. Baina, parte-hartze hori noraino hedatzen da? Muga non dago? Erabakietan ere parte hartu behar al dute? Zentzu horretan erantzukizun partekatu*

baten inguruan hausnartu beharko genuke. Lankidetzako gobernantza praktikara eraman behar da. Beraz, erantzukizuna banatzeaz hitz egin beharko da. Izan ere, kontu ematerik ez badago, oso zaila da lankidetzazko gobernantza horretan sakontzea."

Laugarren taldea

Laugarren taldeko bozeramailea ECO15 da. *"Gure taldean iritzi desberdinak atera dira. Etorkizuna Eraikiz gobernu bakarra da edo ez? Hau da, Etorkizuna Eraikizen beste gobernurik ba al dago? Gure ustez Etorkizuna Eraikizen baitan, Aldundiaz haratago, beste gobernu batzuk daude. Adibidez, udalak. Hala ere, kanpotik Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoako Foru Aldundia da. Edo, kanpotik hori ematen du, behintzat. Hori dela eta, Gipuzkoa hitza gehiago erabili beharko litzateke. Aldundia baino Gipuzkoa erabili beharko litzateke. Hori garapen agentziekin eta eskualdeekin gertatu denarekin lotu daiteke. Zilegitasuna Aldundiak dauka. Hori horrela da. Hala ere, Aldundiak kanalak utzi behar ditu irekita, behetik gorako prozesuak eman ahal izateko. Hori garrantzitsua da. Bestetik, lidergo partekatuaren inguruan hitz egin dugu. Izan ere, lidergo publikoa askotan Aldundiari bakarrik egozten zaio. Lidergo partekatu baterantz pausu gehiago eman beharko lirateke. Rolei dagokionez, estrategia koordinatu bat egon behar da. Eskualdeekin koordinazio bat egon behar da. Komunikazioa goitik behera eta behetik gora egon behar du. Eskerrik asko."*

7. Saioaren itxiera

Arantzazuko Gizarte Berrikuntza Laborategiko zuzendariak hartu du hitza. *"Bukatzeko pare bat gauza esatea gustatuko litzaidake. Hurrengo saiorako etxeko lanak egongo dira. 10-15 minutu eskatuko duten etxeko lanak dira. Baina, horiek betetzea eskatuko dizuegu. Esteka batean bidaliko zaizkizue etxeko lanak. Hurrengo egunetan iritsiko zaizue korreo bat esteka horrekin. Baina, orain azaldu egingo ditut. Lehenik eta behin, lankidetzazko gobernantzaren inguruko etxeko lanak daude. Gure erronka hau da: nola sustatu eta bermatu Etorkizuna Eraikizeko ekimenek lankidetzazko gobernantzan lan egitea? Galdera horren inguruko galdetegi bat pasako dizuegu eta galdera horiek*

erantzun beharko dituzue. Galdera gakoak dira. Lankidetzazko gobernantzaren inguruko irizpideak galdetuko zaizkizue. Leheneste ariketa bat da. Hau da, zein irizpide lehenesten dituzuen jakin nahi dugu. Nire partetik etxeko lan horiek aurkeztu nahi nituen. Orain, Gobernantzako Diputatuari emango diot hitza."

Gobernantzako Diputatuak hartu du hitza. "*Talde hau denbora luzez lanean ari da. Ibilbide bat egin du talde honek. Ekarpen asko egin ditugu ibilbide honetan. Eta saioaren hasieran atera den eztabaidaren harira, gauza bat esatea gustatuko litzaidake. Talde honetan ekarpenak egiten saiatzen gara. Normala den bezala, askotan ez daukagu ezagutza askorik. Ezinezkoa da beti ezagutza izatea. Baina, ekarpenak egin daitezke ezezagutzatik. Bukatzeko, ECO15i eskerrak eman nahiko nizkioke gaurko saioan parte hartzeagatik. Zure ikuspuntua eta esperientzia oso ona izango da talde honentzat. Gogoratu ebaluazioak betetzea. Besterik gabe, eskerrik asko guztioi."*

8. Eranskinak

a. Saioan erabilitako aurkezpena



Kultura Politiko Berria

Maila anitzeko lurraldearen ikuspegia: zer eragin ditu eraldatu nahi dugun politiken ekosisteman eta deliberazio taldean?

2022/05/25

Ongietorria eta sarrera

Eider Mendoza

Saioaren egitura


- Ongietorria eta sarrera, Eider Mendoza
- Prozesuaren jarraipena, lurraldearen maila anitzeko ikuspegia eta ekosistemaren ordezkaritza berria deliberazio taldean, Miren Larrea
- Politiken ekosistemaren maila anitzeko ikuspegia: garape agentziak Gipuzkoan, Itziar Salaberria
- LG Mapa: behin-behineko emaitzak, Naiara Goia
  Talde lana
- Itxiera


Ikuspegi sistemikoaren garapenean aurrerapausoak

Think tankak izan behar duen ikuspegi sistemikoaren baitan, datorren saioan think tankean ongizate sistemen etorkizuna lantzen duen taldeak eta eta Etorkizuna Eraikizeko Gobernantza Laborategi berriak proposatutako bi ardatz landuko ditugu:

a) Etorkizuna Eraikiz Think Tankaren **gobernantza onaren kodea**

b) Etorkizuna Eraikizen **lankidetzazko gobernantzaren irizpideak**





Barne eraldaketari loturiko ekintzan nola ari garen berri ematea

Eider Mendoza eta Nera Urcolak Otsaileko saioan barne eraldaketa prozesuaren berri eman zutenean, deliberazio taldearen **kezketako bat** hau zen: pertsona gehiagotara prozesua zabaltzean, **erresistentziak** egon daitezke.

Horri aurre egiteko proposatu zen moduetako bat **fazilitazio gaitasunak** lantzea zen.

Ondorioz, eraldaketa prozesuaren lehen fasea landu zuen **lan-taldea indartu** egin da eta **fazilitazio gaitasunak lantzen dihardu**, lehen saio bat egin da eta bestea ekainaren 27 egingo da.



Prozesuaren jarraipena, lurraldearen maila anitzeko ikuspegia eta ekosistemaren ordezkaritza berria deliberazio taldean

Miren Larrea

Ebaluazioetatik ekarpenak:

- Taldearen hizkuntza naturala euskara da eta esfortzu bat egingo nuke ahal den guztietan hori bermatzeko
- Ez nuke ezer aldatuko. Agian jende bat faltan bota dut
- Batzuetan (gaur adibidez), sentsazioa dut tarte handia dagoela think tank-a zer den diogunaren eta unean-uneko deliberazio taldean bizi dugunaren artean

19. Lan Dokumentua:



ETORKIZUNA ERAIKIZ

GIPUZKOA ETORKIZUNA ORAIN

THINK TANK

Kultura politiko berriaren inguruko deliberazio prozesua: 19. Lan Dokumentua

DELIBERAZIO TALDEAK EKOSISTEMAN DUEN ERAGINA LANTZEKO PROZESUA: KULTURA POLITIKOA ERALDATZERAKOAN NORBANAKOEN ERALDAKETAREN PAPERA

(2022ko martxoaren 23a)

Sarrera

Kultura politiko berriaren lanketarako deliberazio talde honek bi proiektu hartu ditu jakintza ko-sortzeko erreferentzia moduan 2022rako: lurralde mailako mapatze prozesua eta Gipuzkoako Foru Aldundi (GFA) barruko eraldaketa prozesua. Hala ere, hirugarren helburu bat ere badu taldeak, *deliberazio taldearen eraldaketa* hain zuzen, lurraldean -eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiaren politiken ekosisteman- duen eragina areagotzeko. Martxoko saioan hirugarren helburu hau landu zen.

Saio honetan abiapuntu moduan aurreko saioko ikasketetako bat aurkeztu zen, pertsonen garrantzia hain zuzen. Barne eraldaketan pertsonak hain garrantzitsuak izan badira, lurraldean lankidetzazko gobernantza landu eta kultura politikoa eraldatzerakoan ere hala izango direla proposatu zen. Hau hala balitz, deliberazio taldeak lurraldean eragina izan dezan partaide bakoitza (pertsona bakoitza) da garrantzitsua. Ondorioz, hau izan zen saiorako lan hipotesia: "Norbere eraldaketari eusten ez badiogu, nekez eraldatuko dugu gure inguruan kultura politikoa. Izan ere, ingurua eraldatzeak gaur ez ditugun gaitasun eta jarrerak eskatzen dizkigu".

Activar Win

https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/etorkizunaeraikiz/-/nueva-cultura-politica

Politiken ekosistemaren maila anitzeko ikuspegia: garape agentziak Gipuzkoan

Itziar Salaberria

IZAERA JURIDIKOA:
- Mankomunitateak
- Sektore publikoko erakundeak (Elkarte anonimoak)

MISIOA:
- UDALERRIEN ETA ESKUALDEEN GARAPEN SOZIO-EKONOMIKOAN LAGUNTZEA; Posizionamendu lehiakor diferentziala lortzera bideratutako estrategia baten bidez, balio erantsia sortzen lagunduko duten ildo estrategikoak eta proiektuak identifikatuz, eta horiek lortzeko, inplikatutako eragile sozioekonomiko guztien erantzunkidetasuna landuz.

ESKUA-HARTZE ARLOAK:
- ETEi Laguntza
- Enpleguaren sustapena
- Ekintzailetza
- Jasangarritasuna
- Turismoa
- Eskualdeetako proiektu eta sektore estrategikoen lanketa.

FINANTZAKETA:
- 10% pribatua (enpresak)
- 90% publikoa:
  - ✓ 45% Udalak
  - ✓ 15% Foru Aldundia
  - ✓ 20% Euako Jaularitza

35 Garapen agentzia, EAEko 3 lurraldeetan banatuta.



LANERAKO OINARRIAK:



Eskualdeen arteko aniztasuna:
- Azpiegiturak
- Enpresa-sarea
- Pertsonak (demografikoak, prestakuntzakoak, etab.)
- Indarguneak, Estrategia eta Dinamikak (Botton-up Politiken Kanalizazioa)

Lurralde-oreka:
- Lurraldeko eta erkidegoko politika eta baliabideak eskualde guztietara iritsi daitezen.

GARAPEN AGENTZIEN ROLA

a) Udalen tresnak estrategiak zehazteko eta eskualdeen eta udalerrien garapen sozioekonomikora bideratutako jarduerak ezartzeko.

b) Toki-garapeneko prozesuak errazten dituzten eragileak, bakoitzak bere jardun-eremuan kapital soziala sustatzen dutenak, tokiko eragile sozioekonomiko anitzen arteko harremana erraztuz.



13

LANKIDETZAZKO GOBERNANTZAREN IBILBIDEA GIPUZKOAKO ESKUALDE GARAPENERAKO AGENTZIETAN

1980 hamarkada amaiera	•Garapen agentziak sortzen dira. •Administrazio kontseiluen izaera kontuan hartuta, udalen eta zenbait kasutan hauetan ordezkaturiko alderdi politikoen arteko lankidetzan dute oinarria.
2000 hamarkada hasiera	•Garapen endogenorako apustuei jarraituz, agentziak zerbitzuak ematetik sareen dinamizatzaile izatera pausoa ematen hasten dira. •Udalen/ agentzien garapen politikak enpresa eta eskualdeko beste eragileekin lantzen dira
2013	•Garapen agentziek GFAren gonbidapena jasotzen dute Gipuzkoa Sarean programaren baitan lurraldearen garapenerako estrategia partekatu eta lankidetzan garatzeko. Eskualde arteko mahaia sortzen da.
2015	•Modu esperimentalean sortu zen. Eskualde arteko mahaiari egiturazko izaera ematea erabakitzen da. Horretarako ikasketa eta negoziazio prozesua garatzen da, GFAk eta agentziek elkarlan irizpideak adostuz
2017	•Lortutako adostasunak Aldun nagusiak eta agentzia guztietako lehendakariek sinaturiko hitzarmenean jasotzen dira, gobernantza instituzionalizatuz. Gipuzkoa Sarean Etorkizuna Eraikizen txertatzen da LGLab izenarekin
2021	•Hitzarmena berretsi egiten da. Eremu batzuetan lankidetzazko gobernantza esperientzia aurreratuak garatu dira, beste batzuetan ezin izan da aurrera egin. Agentzien artean eredua barneratzeko pauso esanguratsuak eman dira.

14

LG Mapa: behin-behineko emaitzak

Naiara Goia

Lankidetzazko Gobernantzaren Mapa - Helburua

"Gipuzkoan lankidetzazko gobernantza bultzatzen ari diren erakunde eta proiektuen mapa bat osatu, haien ibilbidea eta jarduera sakonean ulertzeko eta haien arteko saretze prozesuaren oinarriak jartzeko"

Helburu espezifikoak:

- Egun lurraldean daukagun **gobernantza ereduaren egoera** eta abiapuntuko diagnosia egin
- Lurraldean Lankidetzazko gobernantza eredua **hedatzeko erronkak eta aukerak** identifikatu
- Lankidetzazko Gobernantza sendotzeko **dinamika berriak aktibatu** diagnostikoan identifikatutako behar eta lehentasunen arabera
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren herri politiken ekosistema **Ikaskuntza eta praktika komunitate bihurtzea** , misio eta zeregin jakin batekin
- Ekosistema horretan eragiteko eta lurraldean lankidetzazko gobernantza indartzeko herri politikak edo foru estrategiak bideratzeko **lehentasunak identifikatu** eta horietan eragin
- GFAk lurraldean duen sarea indartu eta honen dinamizaziorako irizpideak finkatu, lurraldeko eragileak eta haien arteko **harremanak indartuz**
- Lankidetzazko gobernantza zabaldu, ulermen partekatua eraiki, **erakundeen arteko elkarrizketak sortu eta baldintzak sortu, kultura politiko berri bat**

Mapatzea – Ekintzaren emaitzak

Ondoren zer?

- Gobernantzaren diagnostikoa. Jarraitu eta eguneratu.
- Jarraipenerako, bisualizaziorako eta ekosistemaren dinamizazioareko tresna digitala inplantatu
- GFAk lurraldean duen sarea indartu eta dinamizatu
  - Ekosistema hau **Ikaskuntza eta praktika komunitate bihurtzea** , misio eta zeregin jakin batekin
  - LG sendotzeko dinamika berriak aktibatzea (adib. Gobernantza proiektu berriak)
  - LGren inguruan esperimentazioko ekimen berriak aktibatu diagnostikoan identifikatutako behar eta lehentasunen arabera
  - Etorkizuna Eraikiz-eko beste espazioekin eta egitasmoekin loturak egin, dagoena balioan jarriz
  - KPB think tank-eko metodologia eta diskurtsoekin eragin
  - Ikerketa-rekin lotu

PLANGINTZA eta EGUTEGIA

GOBERNANTZA MAPA PLANGINTZA

ELKARRIZKETAK.ANALISIA.EMAITZEN KOMUNIKAZIOA,KONTRASTEA ETA DIFUSIOA

Ekintzak 2021	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.
0.Materialen prestaketa prestaketa												
Elkarrizketak												
1.Udalekin + garapen agentziekin lehen elkarrizketak												
2.Udalzehatzekin biganen ondoko elkarrizketak												
3.Gizarte eragile esanguratsuekin kontrastea												
Analisia												
4.Informazio jasoketa												
5.Informazioaren analisia												
6.Informazioaren sintesia eta komunikatzeko euskarriak diseinatu												
Kontraste eta difusioa												
7.Komunikazio ekintzak												
8.Kontraste saioak (KPB Think tank, eragile gakoak, akademia...)												
9.Azken emaitzaren difusioa												

Behin-behineko emaitza batzuk

31 udal (> 5.000 biztanle): elkarrizketak + formularioa
(34 udaletatik)

11 Garapen Agentzia (Garapen Gipuzkoa). LG irizpideen kontrastea + Maila anitzeko gobernantzaren inguruko hausnarketa

2 topaketa planifikatuta – Etorkizuna Eraikiz Gunea
Uztailak 6: <5.000 biztanleko udalekin (54) lehen saioa
Uztailak 7: >5.00 biztanleko udalekin (34) kontraste saioa

Maila aluko informazio jasoketa lehen diagnosibaterako

Behin-behineko emaitza batzuk

Lankidetzazko Gobernantzaren inguruko ulermena eta interpretazioa



Praktika onak
Asimetria
"Autokonplazentzia"

- Maila kontzeptualean desberdintasuna: partehartzea, udalbiltza, auzolana...
- Kultura politiko berribatean behara esplizitatzen da
- Familia politiko desberdinen artean ulerkera desberdina diskurtsoan
- Herritxikien praktika zaharra?
- Eboluzio bat atzematen da: praktiketan eta egituratzean (legeak, ordenantzak, espazioak)

Lankidetzazko Gobernantzaren irizpideen kontrastea eta lehenespena

Herritarren parte-hartzea eta desafekzioa. Erronkak: ez dute parte-hartzen, ez dakigu nola asmatu, zailtasunak agerian herritarrak inplikatzeko, formula berriak behar ditugu,... .


LG-k eskatzen du administrazioaren barne-eraldaketa. Tresnak eta gaitasunak falta zaizkie. Antolamendua eta prozedurak sinplifikatu behara

Behin-behineko emaitza batzuk

Etorkizuna Eraikiz-en inguruko pertzepzioa, harremanak, parte-hartzea
Maila anitzeko Gobernantza ("zerbitzu emaile/jasotzaile" logika)

Lankidetzazko Gobernantzaren erronkak/lehentasunak
Prozesu honen balioa eta eman ditzazkeen aukerak. Arantzazulab-en ekarpena

Entzutea



" Etorkizuna Eraikizek dimentsio "serio" bat hartu du, saretze ahalegin bat dago ezagutza partekatzeko, sortzen ari dira bideak eta espazioak. Egiteko beste modu batzuetara gerturatzen ari da, diskurtsoarekin koherenteagoa. Hori izan behar da bidea."

"Lankidetzazko Gobernantzaren nire interpretazioa da herritarrekin batera gai ezberdinen inguruan parte-hartze prozesuak egitea";
"Lankidetzako gobernantza edo udalgintza partehartzailea gure ADNan txertatuta dagen eredua da"

"Parte-hartzetik hurrengo urrats bat behar da";
" herritarrak ere gogaituta daude partehartze istoriarekin, edo beste eredu bat egiten dugu..heziketa-prozesu bat ere bada..."
"beti egon da harreman estua udalarekin harremanetarako...hitz egiten da gobernantzaz edo partehartzeaz eta da gauza bat nik beti sentitu dudana oso modu praktikoan, herri txiki bat bezala funtzionatzen dugunez"

"Egin beharreko zerbait da lankidetzako gobernantzan aurrera pausoak ematea, baina nola egiten da hori?"
"segun ze espaziotan denboraren poderioz sortzen da dinamika bat, giro bat, nahiz eta pertsonak aldatu... ez da kasualitate bat, intentzionale bat dago, hor atera daitezke zergatik gertatzen den hori"

"Kultura aldaketa handi bat suposatzen du teknikari, langile eta egungo antolaera eta prozeduretan".
"Badakigu ez garela egiteko modu berriekin hari, baina tresnak falta zaizkigu"
" Konturatzen naiz mezuen aldetik eta bisioen aldetik modu batean saiatu nahi dugula baina bestetik legeak eta administrazioak dituen korseak eta mugak haustea oso zaila dela.."

Tabe dinamika

Dinamikaren aurreko hausnarketa

- Lankidetzazko Gobernantza ulertzeko modu ezberdinak daude, praktikan eta teorian
- Mapatze prozesuak gerturatu gaitu Udaletara eta Garapen agentzietara + Itziar-ek aurkeztu digu urteetan Lankidetzazko Gobernantza garatzen daramaten esperientzia
- Azaleratu dira harremanan eredu, lankidetza mota, eta lankidetzazko gobernantzaren ulermen, heldutasun eta dimentsio ezberdinak erakunde eta gizartearen artean (Aldundia – beste erakunde publikoak/gizarte antolatua/ herritarrak)
- GFAren ekosistemaan parte hartzen duten eraileen askotariko izaera. LG-ren dimentsioak: Udalak – herritarrak; Erakundeak – Garapen agentziak; Administrazioko maila ezberdinen arteko lankidetza
- Dimentsio horien arabera, irizpide batzuen aplikaziba ezberdina izan daiteke
    - Lidergoa (boterea)
    - Rolak
    - Erabakimen partekatua

Dinamikaren proposamena

MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA-ren inguruko hausnarketa

GFA – Garapen Agentzien arteko harremana eta urteetako bilbidea aintzat hartuta, lankidetzazko gobernantzaren irizpide batzuen inguruko gogoeta eta talderen ikuspegia jasotzea da helburua:

1. **Lidergoa:**
Etorkizuna Eraikizen LG-ren definiziotik: "Lankidetzazko gobernantza politikagintzaren gune jakin batetik proposatzen da (gobernua)… "

Etorkizuna Eraikizen barruan "gobernu" bakarra Aldundia alda? Edo udalei (eta haien agentziei) ere izaera hori errekonozitzen zaie? .
Nork "irekitzen" ditu prozesuak?
Botererearen banaketa. Lidergo partekatua eraikidaiteke? Botererearen banaketa partekatua da? (autoritate formala, baliabide kritikoen kontrola, diskurtsoaren legitimitatea…)

2. **Rolak**
Rolpolitikoa koordinazioaren bidez egikaritzen da – espazio publikoa birdefinitzea dakarhonek (interes orokorrari erantzuten dioten eta lurraldearen garapenean funtzio garbia garatzen duten agentziekin).
Zein izan beharda bakoitzaren rola? Lurralde estrategiak elkarrekin eraikitzeak zer eskatzen du?

Taldeak

1. Taldea: Sebas Zurutuza, Naiara Goia, Mikel Gaztañaga, Asier Lakidain
2. Taldea: Ander Arzelus, Andoni Eizagirre, Mikel Pagola, Fernando Tapia, Eva Sánchez
3. Taldea: Itziar Eizagirre, Mikel Irizar, Miren Larrea, Ion Muñoa
4. Taldea: Itziar Salaberria, Eider Mendoza, Julen Cocho, Gorka Espiau

Etxeko lanak

Gure erronka

"Nola sustatu eta bermatu Etorkizuna Eraikizeko ekimenek lankidetzazko gobernantzan lan egitea?"

Zerda lankidetzazko Gobernantza guretzat?

Noiz esan dezakegu ekimen bat lankidetzazko gobernantzan aritzen ari dela?

Nola (eta nork) jakin irizpide horien baita lanean arigarela?

Nola (eta nork) sustatu lankidetzazko Gobernantza EEn ekimenetan?

(Etorkizuna Eraikiz, Gobernantza Laborategia)

Ariketa: gure definizioaren arabera Lankidetzazko Gobernantzaren ezaugarrien/ irizpideen lehenespen ariketa

Aukeratu irizpide gakoak: Aldundiak sustatzen duen lankidetzazko gobernantzaren ereduak ezinbestean bete beharreko **8 irizpide** gure zerrendako 19 irizpideetatik.

Zure ustez:

- Duten garrantziaren arabera
- Lankidetzazko Gobernantzaren nahitaezko ezaugarriak edo bete-beharrak direlako
- LG-ren zure interpretazioarekin edo horren inguruko zure ezagutzarekin bategiten dutelako
- ...

Formulario laburbatbidaliko dizuegu definizioa eta irizpideekin (azalpenarekin) hurrengo saioaren aurretik eta 10-15 minutuko lana izango da bakoitzarentzat

Lankidetzazko gobernantzaren definizioa abiapuntuan

"**Erakunde publiko, gizarte eragile eta herritarren** artean **erakundetutako lankidetza,** herri politiken **ekosistema ahaldundu eta eraginkortzeko;** eta hori, **deliberazio eta ekintza partekatuaren** bitartez erakunde eta herritarren arteko gizarte kapitala indartuz egin beharda"

(Iturria: Xabier Barandiaran)

Lankidetzazko gobernantzaren definizioa abiapuntuan

Irizpideak:

1. Gobernuek, beren kabuz baino, **gizartearekin lankidetzan eta interakzioan jarduteko borondatea** agertu behar dute
2. Gobernatzea, batez ere, lankidetzazko eta **ikaskuntzazko dinamika irekia da**, erabakiak baldintza hobeetan hartaraitezen.
3. Gobernuek **entzuteko, hausnartzeko eta, zenbaitetan (baina ez ezinbestean), erabakitzeko guneak** sortzen dituzte. Gune horiek ez dira hierarkia baten bitartez zuzentzen; alderdiz, harremanak horizontalak eratzen dira,
4. Gobernuaren eta eragile sarearen tzukearen eta **lankidetzaren bidez ezartzen dira agenda publikoaren lehentasunak** eta aplikazioak eta, hortaz, **baita politika publikoenak** ere.
5. **Egitura bereziak sortzen** dituzte, gobernantza irekiaren eta lankidetzazkoaren prozesuaren egonkortasuna sustatzeko lehenbizi, eta bermatzeko ondoren.

ETORKIZUNA ERAIKIZ THINK TANK

Lankidetzazko gobernantzaren definizioa abiapuntuan

KPB Think Tank-eko taldeak lankidetzazko gobernantzaren definizioaren inguruan hausnartu zuen. Azaldu ziren iritzien arabera, gehiengoak aurreko definizioa egokitzat jo zuen, besteak beste ondorengo irizpideak gehitu zirelarik:

6. **Aktoreen aniztasuna** hobesten da
7. **Ekintzan lantzen da**, ekintzatik eta ikasteko
8. Kultura politiko berriaren oinarriekin bategiten du
9. **Elkarebaluazioa** bere lan moduetan txertatzen du
10. Prozesuek **gardenak** dira
11. Konplexutasunetik definitzen da eta hortik **ikuspegi sistemikoa** garatzen du
12. **Erabakimena nola gauzatuko den aurrez adosten da**



Ebaluazioa eta hurrengo saioa



Bete mesedez ebaluazioa, asko laguntzen digu hurrengo saioak prestatzen



Hurrengo saioa ekainaren 22an izango da. Bertan think tankaren gobernantza onaren kodea eta Etorkizuna Eraikizen lankidetzazko gobernantzaren irizpideak landuko ditugu, think tankak Etorkizuna Eraikizen izan behar duen rolaren ikuspegi sistemikoan sakonduz

b. 20. Lan dokumentua

THINK TANK

Kultura politiko berriaren inguruko deliberazio prozesua: 20. Lan Dokumentua

MAILA ANITZEKO LURRALDEAREN IKUSPEGIA: ZER ERAGIN DITU ERALDATU NAHI DUGUN POLITIKEN EKOSISTEMAN ETA DELIBERAZIO TALDEAN?

(2022ko maiatzaren 25a)

Sarrera

Deliberazio talde honek fase honetan dituen hiru ikasketarako fokoen artean (lurraldearen mapatzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren barne eraldaketa eta taldearen beraren rola eta lidergoa lurraldean), saio honetan aurrena hartu zen hizpide. Bi bidetatik landu zen gaia. Alde batetik mapatze prozesuaren bitarteko emaitza batzuk azaldu zien. Bestetik, mapatze prozesuak erakutsi dituen maila anitzeko gobernantzarako aukerei jarraituz, kide berri bat gonbidatu zen taldera, Itziar Salaberria. Berak, Gipuzkoako eskualde garapenerako agentzietan duen esperientzia dela eta, maila anitzeko ikuspegia lantzen lagunduko du.

Taldera ekarritako ikasketak

Mapatze prozesuak, aurrerago landuko diren beste hainbat elementuz gain, errealitate bat jarri du mahai gainean. Gipuzkoan lankidetzazko gobernantza kontuan hartzerakoan, garrantzitsuak dira bai udalak eta bai eskualde garapenerako agentziak. Besteak beste, herritarrekiko eta enpresekiko duten gertutasunak, aukera bereziak sortzen dizkie lankidetzazko gobernantza gauzatzeko eta aukera hauek proiektu konkretuetan gauzatu dira azken urteetan.

Saioaren sarreran rol honen inguruko informazioa partekatu zen, bai mapatze ariketa iturri moduan hartuta eta baita Itziar Salaberriak egin zuen eskualde garapenerako agentzien inguruko aurkezpenean oinarrituta.

Aurkezpen hauei jarraipen emanaz landu zen ondorengo ataletan jasotzen den lanketa.

Maila anitzeko lankidetzazko gobernantza: banakako hausnarketaren emaitzak

Eraikiko den gobernantza maila anitzekoa izango bada, saioko hizlarietako batek aipatu zuen ezinbestekoa dela Aldundia eta udal edo agentzien artean elkar-aitortza bat egotea.

Harreman hori nolakoa den hausnartzen hasteko, alde batetik think tank-aren lankidetzazko gobernantzaren definizioa hartu zen abiapuntu moduan. Bertan esaten da: "Lankidetzazko gobernantza politikagintzaren gune jakin batetik proposatzen da (gobernua) …". Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu du, baina ondoren galdera hau egin zitzaien partaideei:

Etorkizuna Eraikizen barruan "gobernu" bakarra Aldundia al da? Edo udalei (eta haien agentziei) ere izaera hori errekonozitzen zaie?

Gehiengo batek udalak (eta haien agentziak) ere Etorkizuna Eraikizen baitako gobernu moduan ikusi beharko liratekeela uste zuten, baina gaur egongo egoera hori ez dela aipatuz:

- Nire ustez, hasiera batean, lidergoa Aldundiarena da. Baina, lidergoa, neurri batean, partekatua ere izan beharko luke. Arazoa da lidergo partekatu hori nola artikulatu eta eraiki
- Modeloan ez da bakarra. Praktikan oraindik bai. Ziurrenik zerikusia du bakoitza EEko parte nola eta zenbateraino sentitzen den.
- Modeloan gobernu asko. Baina, praktikan Aldundia bakarrik.
- Nire ustez gobernu bakarra dela "gizarteratzen" da. Eta eskualdeekin analogia eginez, Gipuzkoa hitza edo kontzeptua gehiago erabili beharko litzateke.

Hauetako bik, egoera orokor horren baitan, salbuespenak ere aipatzen zituzten (Udal Etorkizuna Eraikiz eta Lurralde Garapenerako Laborategia):

- Uste dut Udal Etorkizuna Eraikizen bokazioa duen gobernu bakarra ez dela Aldundia. Esparru batzuetan Aldundia ez direnei aitortzen zaie. Hala ere, uste dut lan asko dagoela egiteko oraindik.
- Etorkizuna Eraikizen barruan, laborategian adibidez, egon da udalen eta agentzien aitortza lidergo partekaturako. Beste espazio batzuetan, diskurtsoan eta praktikan Gipuzkoako Foru Aldundiaren lidergoa gauzatzen da.

Egon ziren, ordea, udal eta agentzien aitortza hori jadanik egiten dela, edo gobernua guztiak direla, aipatu zutenak:

- Ez. Beste aktoreei aitortzen zaie. Botere banaketa bat da.
- Ez. Garapen agentziak ere badaude. Nahiz eta lidergoa Aldundiarena izan.
- "Gobernua" guztiak dira. Ideia batzuk: udalak indartu; batzar nagusiak eskualdeka antolatu; unitate funtzionalak, zerbitzuak eskualdeka. Bizikidetza unitateak, nahi bezain txikiak.

Beste ikuspegi batzuk ere partekatu ziren:

- Gobernu aldetik, botere banaketa eta lankidetzan lan egitea Aldundiak berresten du. Hala ere, posible da sinplifikazioan erotzea.
- Estrukturen artean lidergo partekatua, eta, aldi berean, Aldundiak bereak egin dituen helburu estrategikoetan batera operatzen dute.

Aurrekoari loturik egin zen bigarren galdera:

Nork "irekitzen" ditu prozesuak?

Zuzenean nork irekitzen dituen erantzuten zutenetatik, hiruk Aldundia aipatu zuten batez ere:

- Gehienetan Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- Praktikan, Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- Aldundiak.

Baina beste hiruk Aldundiak jadanik lankidetzan egindako ahaleginak azpimarratu zituzten:

- Lankidetzazko gobernantzaren lidergoa partekatua da. Adibidez, Aldundiak zein agentziek irekitzen dituzte prozesuak. Ez da erraza eta kultura aldaketa handia da parte-hartzaile batzuentzat. Hala ere, ez da joera orokorra.
- Praktikan (politika eta prozeduraren aldetik) zaila egiten zait galdera honi erantzutea. Hala ere, irekitzen edo bultzada hori legitimatzen estatus sinbolikoak garrantzi handia du. Hemen Aldundiak urtetako ibilbidea egin du.
- Edonor. Minimo bat jar daiteke. Aldundiak jartzen ditu gaiak eta baliabideak. Gobernantza modu asko daude.

Azkenik, partaide batzuk prozesuak nork irekitzen dituen baino, nola ireki daitezkeen erantzun zuten:

- Prozesuak maila ezberdinetan ireki daitezke. Alegia, ekimena ere partekatua izan behar du.
- Edozein izan daiteke sustatzaile.
- Foru Aldundiak berak ireki dezake. Baina beti utzi beharko du kanalen bat irekita beste zentzuan izan dadin.

Boterearen banaketaren inguruan galdera ondorengoa izan zen:

Lidergo partekatua eraiki daiteke? Boterearen banaketa partekatua da? (autoritate formala, baliabide kritikoen kontrola, diskurtsoaren legitimitatea…)

Baietz erantzun zuten gehienek baldintza edo zailtasunen bat erantsi zuten:

- Nire ustez bai. Eraiki daiteke, baldin eta ahots kolektiboa kudeatzen dakigun.
- Lidergo partekatua eraiki daiteke. Aurrez ezarri behar dira arauak.

- Bai. Baina oso zaila da eta “benetan” partekatzea urtetako eraldaketa da seguru aski.
- Espazio dialogiko bat beharrezkoa da lidergo partekatu hori eraiki ahal izateko. Espazio hori ikaskuntza eta jarduera espazio moduan ulertu beharko litzateke.
- Bai. Baina zaila da.
- Boterea banatu bai. Ez bakarrik erakunde publikoen artean. Lankidetza publiko soziala. Botere banaketaren gainean.
- Ez dut uste absolutua denik. Progresiboa eta eskalaka baizik. Neurri handi batean bai. Kontua da noraino, denek neurria berdin ulertzen duten, etab.

Egon zen Aldundiaren lidergoa azpimarratu zuenik:

- Lidergo instituzionala eta publikoa beti dagokio Foru Aldundiari. Baina prozesuak, emaitzak eta gizarteratzeko orduan lidergo partekatu baterantz pausuak eman beharko lirateke.

Eta baita kontzeptuak dituen arazoak azpimarratu zituenik ere:

- Botere “banaketa” kontzeptuak bere arazoak ditu teorian. Ziur egin daitekeena botere gabezia edo defizitak identifikatu eta azpimarratzea da. Hemen mapatzeak adibide esanguratsua ordezkatzen duela esango nuke.

Azkenik, rolen inguruan ekarpena egin zuten partaideek, ondorengo galderari erantzunez:

Zein izan behar da bakoitzaren rola? Lurralde estrategiak elkarrekin eraikitzeak zer eskatzen du?

Rolen inguruko erantzun zuzen gutxi jaso zen:

- Lurralde/herrialdeek ikuspegi estrategikoa. Eskualdeek kudeaketa, ebaluazioa, deliberazioa: batzar nagusiak.
- Prozesu bakoitzean desberdina izan daiteke. Rolak lurraldearen onerako bakoitzaren indarguneetan oinarritu beharko lirateke. Agentzien kasuan gertutasuna azpimarratu da.

Gainontzean, rolak definitzearen zailtasuna azpimarratu eta horretarako prozesuaren ezaugarriak azpimarratu ziren.

Kasu batzuetan ikasketa eta informazioaren beharra:

- Helburu orokorrenak partekatu behar dute. Ikasketa prozesuan sakondu.
- Nire ustez, eskatzen duena da ikasketa prozesu bat gauzatzea. Bertan elkarrekin lan egiten eta ekintzak gauzatzen ikasteko. Ezingo nuke esan rola zein izan behar duen, lankidetzan ariko direnak adostu behar duten kontua dela uste dut.
- Gipuzkoa eskualde eta udalerri ezberdinek osatzen dute. Ez da ulertzen koordinaziorik gabe eta paraleloan ibilita. Garapen agentziak eta udalerriak oso

gertuko erakundeak izanik, goitik beherako eta behetik gorako infirmazio fluxua egon beharko litzateke.

Ikuspegi partekatua eta elkarrekin gehiago ikusteko gaitasuna:

- Rolak honetan oinarritu behar du: bisio partekatua eraikitzeko bakoitzak eman dezakeenean, norbere interes korporatibo-politikotik haratago. Eta horren arabera, unean-uneko rolak banatzea dator.
- Estrategia partekatzeak bakoitzaren mugak elkarrekin lantzea eskatzen du. Guk ikusi ezin ditugunak, guztiok gure begiradan ditugunak, besteek ikusteko gaitasuna azpimarratu daiteke.

Orokorrean, banakako erantzunek ondorengo ikuspegiak azpimarratu zituzten:

1) Etorkizuna Eraikizen ereduan Gipuzkoako Foru Aldundia ez da gobernu bakarra, baina praktikan neurri batean bai
2) Ereduaren baitan prozesuak Aldundiak edo beste eragileren batek ireki ditzake, praktikan gertatzen denaren inguruak ikuspegi desberdinak daude, batzuen ustez gehienetan Aldundia da, beste batzuen ustez banatuta dago
3) Lidergo partekatua eta boterearen banaketa posible direla uste da, baina zailtasun ugari ikusten dira horretarako
4) Aurrez eragile bakoitzaren rola zein den esateko zailtasun handiak daude. Rolen definizioak ikasketa, informazio elkartruke eta bisio partekatuaren emaitza izan behar du

Maila anitzeko lankidetzazko gobernantza: taldeko hausnarketa

Aurreko ekarpenetatik abiatuz taldeek gaia landu zuten. Bozeramaleen erantzunetan bazen patroi bat, hasieran praktika zein den adierazi eta ondoren zein izan beharko litzatekeen azpimarratu zuten. Horregatik, zati honetan aurrena taldeen hitzetan egoera zein den azaltzen da eta ondoren, horren inguruan taldeek egin duten ekarpen normatiboa edo nola izan beharko litzatekeenaren ikuspegia.

Maila anitzeko gobernantza praktikan: nolakoa da?

1_Taldea. “Aldundiak […] adibidez, garapen agentziekin: Gure ustez beti azken hitza Aldundiak dauka. Hala ere, Aldundiak beste aktoreak entzuten ditu. Lehen partaide batek aipatu du Aldundiak jator entzuten duela. Hau da, nahiz eta erabakimen eskubidea berak izan, beste lurraldeko aktoreak kontuan hartzen eta entzuten dituela”

2_Taldea. “Gure ustetan, lidergoa Aldundiarena da. Hala ere, Aldundiak ahalbideratu duen lidergoa partekatua da”

4_Taldea. “Gure ustez Etorkizuna Eraikizen baitan, Aldundiaz haratago, beste gobernu batzuk daude. Adibidez, udalak. Hala ere, kanpotik Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoako Foru Aldundia da. Edo, kanpotik hori ematen du, behintzat”

Maila anitzeko gobernantzaren inguruko ekarpen normatiboak: nolakoa izan beharko luke?

1_Taldea. "Aldundiak zilegitasun demokratikoa dauka lurralde osoan. Hala ere, gure ustez beste aktoreei lekua utzi behar die"

2_Taldea. "Etorkizuna Eraikiz berak ekartzen du lankidetzazko gobernantzaren ideia bat. Izan ere, espazio dialogiko bat sortzen da bere baitan, aktore eta erakunde desberdinek bertan eragiteko. Gainera, prozesuaren helburu garrantzitsuenetako bat lidergo partekatu bat eraikitzea da. Hala ere, hori ez da erraza eta denbora eta esfortzua exigitzen ditu. […] Oso normatiboa eta teorikoa da esaten duguna. Eta, kontziente gara hortaz. Baina, gure ustez, ikasteko eta jarduteko espazio komun bat egon behar da. Izan ere, lankidetzazko gobernantza hor ematen da. Rolak espazio horretan definituko eta ezarriko dira"

3_Taldea. "Etorkizuna Eraikiz Aldundiaren lidergotik sortzen da. Hala ere, maila anitzeko gobernuak egon behar dutela uste dugu. Gure ustez hor gatazka bat dago. Izan ere, partekatu edo entzun bai. Baina, azken erabakia zeinek hartzen du? Hor erantzukizun legalak daude, adibidez. Deliberazioan parte hartzeko eskatzen zaie aktoreei. Bertan haien iritzia ematen dute eta denon artean eztabaidatzen da. Baina, parte hartze hori noraino hedatzen da? Muga non dago? Erabakietan ere parte hartu behar al dute? Zentzu horretan erantzukizun partekatu baten inguruan hausnartu beharko genuke. Lankidetzako gobernantza praktikara eraman behar da. Beraz, erantzukizuna banatzeaz hitz egin beharko da"

4_Taldea. "Gipuzkoa hitza gehiago erabili beharko litzateke. Aldundia baino Gipuzkoa erabili beharko litzateke. Hori garapen agentziekin eta eskualdeekin gertatu denarekin lotu daiteke. Zilegitasuna Aldundiak dauka. Hori horrela da. Hala ere, Aldundiak kanalak utzi behar ditu irekita, behetik gorako prozesuak eman ahal izateko. Hori garrantzitsua da. Lidergo partekatu baterantz pausu gehiago eman beharko lirateke. Rolei dagokionez, estrategia koordinatu bat egon behar da. Eskualdeekin koordinazio bat egon behar da. Komunikazioa goitik behera eta behetik gora egon behar du"

Aurrera begirako pausoak

Taldeak, orokorrean, maila anitzeko ikuspegi batetik aritzea lehenetsi du, eredu horrek praktikan duen garapen mailari dagokionez ikuspegi desberdinak azaleratu diren arren.

Jadanik Aldundiak beste eragileei, udal eta agentziei, entzuten diela azaleratu da. Jator entzun ere aipatu da, entzute ariketa horrek Aldundiarengan eragina duela adieraziz. Baina lankidetzazko gobernantza entzute ariketa hori den, edo haratago joan behar duenari dagokionez, ikuspegi desberdinak azaleratu dira, gatazka hitza ere erabili delarik. Aurrera begira, beraz, lankidetzazko gobernantzaren izaera sakonagoan landu beharko da, erabakimena, ardura partekatua, lidergo partekatua eta boterearen banaketa Etorkizuna Eraikizen maila anitzeko gobernantzan nola gauzatzen ari diren eta nola gauzatu nahiko liratekeen argitzen joateko.

c. Saioko programa

THINK TANK

KULTURA POLITIKO BERRIAREN INGURUKO DELIBERAZIORAKO TALDEA

GUNEA, 2022ko maiatzaren 25a

SAIOAN LANDUKO DEN ERRONKA

Saioan garapen agentzien esperientzia azalduko da. Garapen agentziek Gipuzkoako lankidetzazko gobernatzean izan duten rola azalduko da. Horrez gain, mapatzearen egoera azalduko da eta orain arteko emaitza batzuk aurkeztuko dira.

SAIOAREN EGITURA

- Ongietorria eta sarrera, Eider Mendoza
- Prozesuaren jarraipena, lurraldearen maila anitzeko ikuspegia eta ekosistemaren ordezkaritza berria deliberazio taldean, Miren Larrea
- Politiken ekosistemaren maila anitzeko ikuspegia: garapen agentziak Gipuzkoan, Itziar Salaberria
- LG Mapa: behin-behineko emaitzak, Naiara Goia Talde lana
- Itxiera